

IBAI IZTUETA

ORO BARE



© Ibai Iztueta

© Utriusque Vasconiae

Lehen argitaraldia: Donostia, 2008ko martxoa

ISBN: 978-84-935757-7-9

Lege-gordailua:

Diseinua eta maketazioa: P.I.A.

Azalaren diseinua: A & R de Gorostarzu

UTRIUSQUE VASCONIAE -

Ategorrieta Hiribidea, 3-3.

20013 Donostia. Tel.: 943-270433

Banatzailea: BITARTE - 31195 Berriozar  
(Nafarroa).

Tel.: 948-302239

## AURKIBIDEA

LAGERSTÄTTEN .....	5
1 .....	11
2 .....	12

### Epikaren behi begiak

AZALAREN EGUNEAN EGUNEKOAZ .....	15
BIHARRA .....	17
EGUNAREN ZENTSUA .....	18
ITZULERA .....	21
ZAINDARIAK .....	22
GANBARA .....	23
LITERATUR BALIABIDEAK .....	25
ORO BARE .....	30
FAMILIA, LAGUNAK .....	32
SENTIKIZUNIK HUTSENA .....	34
LOTSA VASCONIAN .....	37
ZAINDU GIZALEGEA .....	39
AHULENA .....	41

### Totel lirikoa

THEORIA ASTROLIRICAE .....	45
POSTALA .....	49
ÑABARDURAK .....	51

BISITARIAK .....	53
ALBATROSA ETA UGATZA .....	55
• Berunezko ate astunak .....	56
LOEZ LUZE, HEZE, BIGUNA .....	58
ZEZENBURU .....	61
GOGORRA, GOXOA, EDERRA (I) .....	62
GOGORRA, GOXOA, EDERRA (II) .....	63
BEGI URDINAK .....	64
GEROZ ETA HITZ ARRAROAGOA .....	65
HAIZEA TXERNOBILGO BASO EDER ISILETAN	69

## **Ez azkarra, bai saiatua**

BAZTERREKO HERRI BATEAN .....	73
-------------------------------	----

## **Mistika hutsa, kaferik gabe**

BANINTZ .....	83
LEHENENGO ALDIA .....	85
ARTOLA DETEKTIBEAREN PESKIZA .....	86
HARRIA .....	91
HONDARRA .....	93
BESTEARENA .....	95
AMETSA .....	97
• Bukatu aurretik .....	98
HAUTUA .....	99
• Umea artean .....	101
BURGES TTIPIAREN OBAUBA .....	102
OBAUBA AURRETIKO APUNTEAK .....	104
LITOFAGIA .....	106

## **Epilogo**

GURE HITZAK EZ DIRA ARTISTAK .....	109
------------------------------------	-----

## LAGERSTÄTTEN

Fosilak, lurpean oso luzaz iraun eta, harri bihurturik gelditu diren landare eta animalien aztarnak dira. Denboraren joanean, materia organiko galkorra suntsitu egiten da eta hark utzitako leku, hutsune eta arrastoetan pausatuz, inoiz bizitza izandakoaren forma gordetzen du mineralak.

Alde horretatik, beraz, fosilak inoiz pixkaren bat harritzea erdietsi duten bizitza pusketak direla ere esan liteke.

Fosiltzea jazo dadin izakia hil orduko lur geruza batek estali behar du, gisa honetan deskonposizio azkarrari bidea itxiz. Maizenik, unea bat batean eta tragikoki ebaki duen luizi edo antzeko ezusteko istripuren bati zor zaion gertaera da hau. Horregatik, gutxi dira fosilak, eta itxuragabetuak. Aurkezten dituzten formek era baldres eta mugatuan erakusten dute bizi izan zuten munduaren konplexutasuna.

Halere, bare-bare ageri zaizkigun harri kozkor zelebren eta serio hauei esker, geometria umil hauei esker, balio handiko informazioa eskura dezakegu: adibidez, istripuarena ez ezik, jakingo dugu oinarrizko gauza bat, gauza txit garrantzitsu bat, hots, bizitza izan dela, izan.

Nondik begiratzen den, testuak gure bizitzen fosiltzat har ditzakegu. Egia, testuak, intentzio handiagora gorde-

tzen dutelako ziurrenik, konplikatuagoak zaizkigu, ez fosilak bezain sotil eta errugabe. Baina, guztiarekin ere, bidezko konparazioa dirudi. Testuak, fosilak bezala, nork irakurri eta interpretatu zain daude. Testuetan, fosiletan bezala, espezie batek berezko duen bizitzeko erarekin aurrera egiteko ahaleginaren berri ematen zaigu; baita sedimentatu direneko lurraz eta giroaz hausnartzeko parada ere.

Fosilen artean, bi mota bereiz daitezke. Alde batetik, zati gogorra gorde dutenak: denbora geologikoaren astinaldi bortitzari nola edo hala eusteko sendotasunez hornituriko gorputz egiturak, hezurak, hortzak, oskolak. Hauek osatzen dute erregistro fosila, ia osoki.

Besteak, gutxi direnen artean gutxi diren horiek, zati bigunen fosilak dira, haragiarenak, mintzenak, taupadenak. *Lagerstätten* esaten zaie gorputz biguneko faunen erregistro fosilei eta oso direnez bakanak eta arraroak, paleontologoek harribitxizat daukate. Bizitzaren historiari buruzko informazio ezin preziatuagoa ematen digute, *lagerstättenek*.

Lekukotza mota hau islatzen duten adibide txikien artetik ondorengo hau proposatzen dizuegu guk:

## NEVADA

Nevó en el Valle del Sur –una vista sin par.  
Hiné la espuela –nadie en la senda– breñas, broza  
–Me adelanté a la madrugada –crucé primero  
el puente almagro –vi techumbres desfondadas,  
labriegos arruinados, su hambre desoída.  
Lo que sentí lo sabe el cuervo crepuscular:  
Hasta la punta vuela del árbol descarnado,  
se posa y una lluvia desata de carámbanos.

K.o XI mendeko uneren batean, Su Tung P'o izeneko gizasemeak idatziriko testua da, Octavio Pazek espainolez emana. Bizitza txatal bati buruzko informazioa miresgarriki dakarkigun perla txikia. Harrigarriena, testuaren amaiera da ze, irudi txundigarri baten bidez, hurkoaren zoritxarraren aurrean eroso bizi den bihotzean errukia, amorrua, errua –batek daki zer, egia esan– ezinarekin nahastean egosten den sentimendu zaila adierazten asmatzen baitu. Ederra da, ederra denez. Eta, zer egingo diogu ba, horrelakoak alperrik sortzen ahalegintzeko gogoia ematen du.

Zoria tarteko, ikusmira paregabeak, pairamenak eta taupadak berreskuratu ditugu. Arestian esan bezala, testuen artean, paleontologo jakinminak literaturaren eremuan aldian aldika aurkituko dituen bazter bigun horiek dira, izan, *lagerstättenak*.

C.C-k eta I.I-k  
2008ko urtarrilaren 27an





*Arroka hauetatik itsasoa begiratu  
eta ematen du mantsoa, bare barea,  
ia lo dagoela*

Joseba Sarrionandia



1

**Zuria naiz**

2

Ez naiz zuria

**Epikaren behi begiak**



## AZALAREN EGUNEAN EGUNEKOAZ

*per occupationes vita trudetur*

Seneka

Egunen uztarritik buru makur tiraka,  
etxetik lanerakoan, lanetik etxerakoan,  
eraikin lerro nahasien zintzurak  
ibilian ibiltzen ditut.

Atzo agurtu nuen hiritarrari  
diosala egingo diot bihar  
ohiko bidegurutzean.

Eta otutzen zait: paisaia hau ez da  
ibai emankor bat, baizik eta  
busti eta pixka bat higatu,  
eta soilki, harriak legez,  
busti eta pixka bat higatu  
egiten nauen egunen zaparrada hotza.

Ez dira nire urratsak eremu honen  
mugak begiztatzeko gauza.

Izan al da inoiz beste paisaiarik?

Izango al da niretzat inoiz  
eremu amaigabe hau ez besterik?

Kamaleoia.

Gugandik at ez duk setiaturik gauzkan  
paisaia itsu, aldagaitzik.

Aise antzemango hioke mudantza honi.

Berehala nabarituko huke inguruaren aldaketa,  
baldin eta ez bahintz hi heu,  
—eta heure kamaleoi barruazala ere—,  
alboan dakarkian paisaiarekin batera  
itxuraldatu.

Ez dik, egiazki, ezerk irauten berean.  
saihestu, beraz, gogoia iluntzen diaten  
alperreko beldur horiek.

Eta, hau jakinik, alboratu, kamaleoia,  
alperreko galderen tentaldiak ere:  
ez orain galdetu, zer besterik izan den;  
ez jakin nahi izan, orain, besterik zer  
izango den.

Ez duk hire barruazalaren lorratzik aurkituko  
ez nostalgietan, ez espekulazioetan.

Izan ere,  
noizbait izan hintzena  
gandu paisaiak ezkutaturiko  
itzalak dituk, landa urrunetan.  
Eta, finean, inoiz izango haizena  
hire barruazalean daukaan  
paisaia ezagun  
bakar hori  
haiz.



## BIARRA

*Harkaitzi*

Mahai-inguruko algarak eta jendarteko kalaka hanpatuak.  
Seriotasun maskarrak, uneka.  
Esku fineko laborari epel; hazi ereile zuri.  
Gu, axolagabe. Iragan mehea isiltasunean soslaitzen  
Nola oskorria sortaldearen oinetan.  
Haztamuka; hala ere, tente.  
Ikusiko zenez, hauskorrak.  
Baina suntsiezinak, oraindik.

Parrez parrez idatzi genian –akordatzen?– aluok:

*Bizitza ez da jolasa*

*Bizitza ez da negarra*

*Bizitza*

*Lana da.*

Ai, lagun,

Nola dek posible?

Zakurzaharturik ote gintzean, ba, ordurako?

## EGUNAREN ZENTSUA

*“Demà serà un altre dia”  
m’ha fet, a vegades, tremolar.  
(...) Hi ha frases totalment inútils,  
inservibles, falses, que hom transporta,  
com un pes mort, anys i anys.  
Josep Pla*

- 02) Mamuak errari, bideetan: taxiak gauean.
- 03) Zerena urdinek gaizkinak garbituko dituzte  
isatsarekin.
- 04) Banketxeetako atari barru bikainetan  
hotzik ez. Lo,  
zakurrek eta beste animalia askok bezala.
- 05) Okinak –euren amantal zuriak eskegirik–  
eta egunkari banatzaileak  
–tintaz belzturiko hatzak patriketan–  
etxebizitzetara igo dira.
- 06) Erreleboarekin errementariak lantegietako burdina  
eta koipea agurtu dituzte.
- 07) Oilariteak autobus baldarrak ekarri ditu ohiko  
moduan,  
balantzaka eta urrumaka. Eta  
a) ez doaz Alfa Zentaurora,

b) ezta aurkako norantzan, Afrikara ere.

©) gurean jarraituko dute.

- 08) Begira, hala nola egiten duen lanbroak ibaia,  
hau jendea da karrika estaltzen.
- 09) Etxeko-andrea, oheak egin eta arropa lurretik jasotzera  
makurtu da. (Esango du: *Hau da gure etxea*)
- 10) Ikaslea taldean bilduta eseriko da gelan.  
(Esango du: a) *hau da nire lekua*  
b) *hauek dira nire lagunak,*  
*nire etsaiak*).
- 11) Deserrian Joseba Sarrionandiari artatxoriak irten zaizkio  
burutik
- 12) eta oroitzapenak direla izkiriatu: osaba itsuak nola  
artalandaren neurrian  
antzematen zion bizitzaren lehia xotilari.
- 13) Eguneko menua: entsalada eta bigarrenkoz legatza  
saltsan. Edateko ardo beltza , mesedez.
- 14) Eta erreleboarekin errementariak lantegietako burdina  
eta koipea agurtu dituzte.
- 15) Eraikin ofizialera sartu aurretik, eguerdi mardul eta  
adeitsuak bere arratsalderako  
plana  
aurkeztuko du kafetegian.
- 16) 16 ° © Parisen; 15 ° © Maulen. Ipar mendebaldeko  
haizeak lainotzar ugari ekarriko digu kostaldera, giroa  
kaskartuz.

17) Laino baxuak eta euri lardatsa  
egun guztian.

18) Eta, arratsak, zapi koloretsuz beteriko poltsan ahaz-  
tuko ditu

bazter auzoren batetako dorreren  
batetako egongelaren batetan dagoen  
baserriko seme-alaba zaharturen batek ahoskaturiko  
haurtzaroko hitz zaharren batzuk.

19) Kapusai beltzarekin, ailegatuko zaio burges ttipiari  
denda ttipiko errezel metalikoak ixteko ordua.

20) Fideo-zopa, fruta, mahai-zapi gorria, irratia.

21) Neskame beltxaranak izpiluari bezala galdegingo dio  
ordenagailuko pantailari: *zer berri han, urruti  
horretan, etxean?*

22) Erreleboarekin errementariak lantegietako burdina  
eta koipea agurtuko dituzte.

23) Eta telebistaren aurrean apalduta  
*Bihar beste egun bat izango da*  
barruntatuko du akiturik  
etxekean etsiak.

00) Eta lotarakoan  
*Bihar beste egun bat izango da*  
igarriko du esperantzaz  
neskatila bihoztunak.

01) Eta bihar  
beste egun bat izango da,  
noski.

## ITZULERA

Azkenean iritsi naiz eta andere  
handi, mardul, ezta iruditu zait  
atea. Umea altzoan bezala gordeko nauela adieraziz  
*hatoz* diost amultsuki.

Barrura sartu eta argia piztu dut.  
Objektuak azaldu dira bazterretan,  
isiltasun putzutxoetan, zain.

*Gure etxe pobrea, erregena baino hobea.*

Gauzak, geldi, lasai,  
nahigabe  
ahoskatzen diren izen apalekin,  
euren ogi eta ohe izenekin.

## ZAINDARIAK

Trumoia. Harria.

Esnatu garelarik, kristalaren atzetik

kaleari so egitera urreratu gara.

Goizeko ordu biak eta erdi.

Pareko eraikinetan ere piztu dira leihoak.

Aspaldian ez bezalako ekaitz koleratsuak

haizeak papera bezala dardarazten du hiria.

Zerua milioi bat zatitan puskatu dela dirudi.

Gaur unibertsoko izar denak eroriko direla dirudi.

Orroka mugitzen da. Indar handia du erauntsiak.

Eta ikusgarria da. Hunkigarria.

Farolen argipean, burdina irakiten espaloia.

Aitor dezagun, ez da oso irudi epikoa, beheko farola  
hauena:

Zotz gorputza dute

eta kalabaza buru handia, piztuta.

Baina eurak dira kanpoan erauntsiari tente eusten  
dioten bakarrak.

Hor dago hiria. Hor jarraitzen du,

farola argiek begiradarentzako zaintzen dituzten kale  
hutsetan kukututa.

Gure izu prehistorikoa

gordelekurik seguruenetako larritasuna baino ez da  
gaur gauean, hemen.

## GANBARA

Hegoaldeko atetik sartu da hirira.  
Trafiko eskasa eta semaforoak lagun,  
berehala iritsi da parking-era.  
Laugarren solairura igo eta atea ireki du.  
Plastikozko poltsa betean  
altxorra dakar irakasleak.  
Sukalderaino sartu da eta emazteari erakutsi dio.  
Gero, trastelekutik egunkari zaharrak hartuta  
lantokira sartu da.

Bertan ditu egurrezko idazmahaia,  
eta ordenadorea. Baita karpeta, fitxategi  
eta jakintza liburu seriosak ere  
sabairainoko apalategi ilunetan antolaturik.

Laster da erretiroa hartzekoa.

Leihotik pareko fatxadak ikusten dira.  
Gorago, antenaz harroturiko zerua  
eta beherago, kalea,  
jendea espaloian, kotxeak ilaran aparkaturik,  
atariak eta negozioak  
–etxe-tresna elektrikoak saltzen dituen denda,  
telefono mugikorrena,  
pare bat kafetegi–.

Kosta egiten zaio lurreraino makurtzea.  
Halere, leihope bazter horretan paratuko ditu, bai,

ustelduta gal ez daitezen egunkari orrien gainean  
zabalduta,  
jaioterriko sagastiak emandako  
errege-sagararak.

Gaurkotasuna bihar galduko duten espektakulu,  
mundu, politika, iritziei buruzko berrien gainean  
barreiatuta  
oreinekikoak dira  
eta berdeak, errege-sagararak.  
Irregularrak eta txikiak,  
gotorrak.

Doi mikatzak.

Egunkari orrien gainean zabaldu behar dira,  
iraun dezaten.  
Hala egiten zuten bere etxean, Erradionen.  
Hala ezagutu zuen berak, behintzat.



## LITERATUR BALIABIDEAK

Kapitaleko lehengusuak ginen gu.  
Mutikoak,  
probintziako azken herrian.  
Lana egitea zer zen ikas genezan  
edota  
gure ahalegin erkinak ere  
zerbait  
balioko zuelakoan  
belarretarako deia egin ziguten.

Konplikatua,  
ez zen.  
Baten batek egina zuen mozte lana  
eta taldeari, larrean sakabanatu ondoren,  
malkarra  
orraztea tokatzen zitzaion.

Lehenbizi  
printzesa zorabiatua bezala,  
ziplo,  
erorita zegoen belar iharra lerroetara  
ekarri behar zen.

Gero,  
lerro hauek,  
lerro lodiagoetara batu  
eta azkenik,

han hemen  
metatxoak antolatu behar ziren.

Bero sargoria egiten zuen, noski.  
Abuztua.  
Urdina gordin goian.

Gure jardun mantsoak  
eta aldamenetik egurats orea janez  
bapo  
pasatzen ziren erlastar eta mandeuliek bakarrik  
eragiten zioten  
gelditasun  
orokorrari.

Mukiak belzten zizkizun  
hautsa  
altxatzen zen sudur zuloetara.

Belar lehorra  
laztu  
egiten zen orkatilen kontra  
eta  
izpiak  
gogaikarriro sartzen zitzaizkizun zirrikituetatik  
behatz artera.

Besterik?  
Ekinean hasi eta berehala,  
babak eskuetan.

Honengatik guztiarengatik,  
akaso,  
baina pulamentuari euste aldera,  
ziurrenik,

ez zen berriketa handirik  
makurturik genbiltzanon artean.

Noizbait  
edari freskoarekin eta hamaiketakoarekin iritsi ziren  
behetik.

Eta eskuareak utzi  
eta borda ondoko astigar bikainaren itzalean  
esertzera  
elkartu ginen denok.

Gogoan dut  
mahaiaren gainean,  
parez pare,  
nire lehengusuaren hatzaparrek,  
errinozero zahar bat  
ematen zutela  
eta nire eskuek, berriz,  
esne opil  
mamurtuak.

Jan eta edan egin genuen  
eta haizetxoaren laguntzarekin  
isiltasuna brodatzen jarraitu,  
norberebaitaratuta,  
bakoitzak  
bere mundutik irteteko gogo handirik ez balu bezala,  
bertan goxo,bertan ondo, balego bezala.

Isiltasun eta bake horretan  
euri bitxia ari zuen  
gure inguruan:  
Astigarraren fruituak,

helikoptero epotx eraitsien helizeak iduri zuten  
samarak,

zimbuluka,

ardatzaren

gainean

biraka,

diskrezioz

baina

euren

unea

ongi

hautatuz,

hosto

artetik,

lurreraino

edota

mahai

gaineraino

erortzen

ziren.

Mahai gainean

gure aurrean pausatu

eta ez ziren mugitzen.

Ez zen ikuskizun ikaragarria, zorionez.

Eta neure partetik esan nezake

bereziki pozgarri neritzola une horretantxe,

fruitu hauek

KOKOTEROARENAK

ez izateari.

Arnas botatzea bidenabar aprobetxatzearren bezala

esan nuen, esan banuen.  
Zerbait esateagatik.

*Eskerrak KOKOAK  
ez diren.*

Ezustekoa eta harridura unearen ondoren  
ALEGRANTZIA  
eta  
ALGARA  
eztanda gerizpean.

To, kapitaleko lehengusutxoaren  
baliabide erakustaldia!

Algarak eta alegrantzia.

Eta, egia esan, ondo geunden han, bai,  
ondo geunden han, mendi artean,  
pixka batez egonean,  
oraindik eguerdia ez eta berriro lanera altxa aurretik  
Polinesiako hondartzetatik hain urruti.

## ORO BARE

“Igande bazkalaurre eta oro zen bare badian.  
Pasioan ginen andregaia eta biok eta orduan  
egin genuen topo berarekin.  
Zer edo zer entzuna genuen arren, ezin sinetsi,  
ezin geure begiz ikusi arte onartu.  
Ezagun zuen esne bitsetan zetorrena eta  
ez bat, ez bi, amuarrain dirdiratsu lako hitzez  
hasi zitzaigun kontatzen, zera,  
San Sebastian bezperan  
kirtenean gora komunetako zeru sabaiak ukitzeraino  
eraman zuela tipo bat berak ahal zuenik eta  
hurrupada egiazko eta saiaturaren  
graziaz.  
*Zenbat poztu zen ikusi bazenu, K.!*  
esaten zidan, bozkario txoroz.  
Eta egiten ahal ninduela neu ere zoriontsu.  
Zergatik soilik  
lagun zahar. Zergatik ez urratu  
mugak...  
Isildu gabe aritu zen, entusiasmoz gainezka eta gu  
amableak izan ginen lagunarekin.  
Hurren arte esanda pasioarekin jarraitu genuen gero.

Nahaste bipolarra  
diagnostikatu omen diote, badakizu,  
nahaste bipolarra. Kondena luzea.

Gurasoak, pentsa, lur jota. Mutil lagunak utzi...”

Alde batetik, nahaste bipolarra.

Bestetik, igande bazkalaurre, oro bare badian.

Haizetxoak tamarizen adatsen gatibu, hiritarrak

itsasertzean].

Sagardotegirako bidean kontatu dit eszena lehengusuak.

Kuttun izandako beste lagun bat etorri zait gogora.

Zorionez, neurriratu omen da. Baina hura ere

burutik nahastuta ibili zen.

Nora ezak eta pairamenak jota.

Su garrek harturiko etxea zirudien berak. Eta guk,

bizitza su garrek hartu hari inguruka

eta urreratu ezinik dabilen

zakur uhuria itotzen genuen golkoan,

urrundu ahala.

## FAMILIA, LAGUNAK

Larunbata, 7:30. Venta el Cepoko aparkalekuan  
esnatu gara. Giroa fresko dago oraindik, ia argitu du egunak.  
Errepide ondoan gaude,  
abeltegi lur eta finka bakanetako galsoro biluziz inguraturik.  
Oso eremu irekia da hau guretzat. Bestelako paisaiak dira  
gureak].

Tabernan, zerbitzari gazte maingua dugu zain.  
Hemen gosalduko dugu denok, baita bazkalduko ere,  
zenbaitek.

Bisitatxorakoan antsiaz egiten dugu hitz,  
minutuak janez, hizpideak agortuz.  
Eta pozik-edo irteten dugu.  
Baina gure poza urtsua da, eta labainkorra.  
Taldetxoren bat herrirantz joango da egun pasa.  
Beste batzuk bertan geratuko gara.  
Gure artean egiten dugu hitz. Edozein gauzari buruz.  
Batzuetan besteen arazoen berri izaten da. Soluzio sinplea  
baina ezinezkoa]  
edo oso zaila duten arazo handiak.  
Inork ez du nekerik aipatzen. Jada entzuten ez den  
burrunba hotsa]  
bezalakoa baita nekea.  
Arrotz zaigun jendea etorri, mahaietan jarri,  
zerbait hartu, egon,]



eta joan egiten da,  
guk bentan jarraitzen dugun bitartean.

Kafea hartzen dut.  
Lo hartuko banu,  
harkaitz zaurgarriekin egingo nuke amets ziurrenik.

Larunbata, 20:00. Eta honez gero freskatu du berriro giroak.  
Zergatik jakin ez, baina bozgorailu batetik  
andere aparta behar duenaren ahots zoragarria  
entzuten da, bentan,  
gitarra espainolen urradurak lagundurik.  
Badirudi arratsa bera dela kantuan ari dena.  
Agortzeaz da argia. Zeruaren atzean ilargia  
erreka azpian uharriak bezala ikusten da.  
Eta parean, eguzkia, gorringotuta.  
Badoa, bai, eguna.  
Egun ona izan da. Egun ona izan ohi da.  
Behar bada, itxaropentsu gaude.

Bederatziak laurden gutxitan hartuko dugu bueltako bidea.  
Igoko dira Sevillan Huelvakoak  
eta Algeciraskoak.

Eta egunen batean, ez gara berriro gehiago itzuliko  
berez nahiko ederra omen den Cadizko  
Puerto de Santa Mariara.

*2006ko iraila.*

## SENTIKIZUNIK HUTSENA

*I hurt myself today  
To see if I still feel  
I focus on the pain  
The only thing that's real  
Nine inch nails*

Oinazea sentimendu hutsa dela pentsatuz  
aiztoaren mehatxuari hel zeniezaioke.

Ezpain zorrotza da, ezta? eta, orain, noiz askatuko duzu  
aiztoa?

Berehala? geroxeago? ala jada beranduegi  
izango denean?  
Zeure haragiaren aukera eskain zeniezaioke,  
zeure besoan pausa zenezake ahoa,

eztiki, emeki, antzizarretatik sorturiko tximeleta  
zehatza bailitzan.

Eta hadi, postura honetan zeundekeelarik, beldurra  
gazitgutzen dizun

zimikoa aditu ahalko zenuke  
nahiko garbi.

Zer egin? Ate gorri bat igarotzen den legez  
zu babesteko dagoen beldurra  
aurrera pasoa batez gaintitzen ausartu? ala, aiztoa  
jaregin? Aihotza haragian zapalduz gero

oinazea aurkituko zenuke. Oinazetxo bat,  
hasieran,  
herabea, erraz uxa litekeen zerbait. Baina, finean,  
oinazea.  
Eta kontua da behin puntu honetara ailegaturik,  
aiztoa hartu tokira erretiratu  
ala ez erretiratu erabakitzeko tenorea  
iritsiko litzaizukeela berriro. Eta zer egin  
galdetu behar berriro. Oinaze handiagoari diozun beldurrak  
ozenki diotsuna egin zenezake.  
Aitzitik, demagun aiztoari are gogorrago  
heltzen diozula,  
demagun lotu nahi zaituen beldurra azpiratzeko lain  
ausardia ernetzen zaizula.  
Demagun hala dela eta aiztoari presio iraunkor eta neurtuz  
sakatzen diozula,  
beherantz, harik eta zain duzun oinaze handiago,  
sorrago eta itzulbiderik gabekoagoak, zurrumbilo latz  
batek bezala,  
xurgatzen zaituen arte.  
Lagun, orduan, bakarrik zeundeke,  
bakarrik zeundekeenez.  
Bakar bakarrik, bakarmortu ttiki,  
sakon eta aratzenaren erdian.  
Hasierako errugabetasunetik bezain urrun  
zure gogoaz jabetu den ondoez oinazetsuaren  
amaieratik.  
Eta zernahi onargarri egiten duten beldur onar  
gaitzen artean,

edozer jasangarri bihurtzen duten oinaze  
jasangaitzen alboan, zer  
gara gu? Ausart? Zuhur?  
Koldar?

Uste dut ni neu koldarra naizela, ez inondik ere, beldurrari  
aurre egingo dion ausarta;  
ez behintzat, neure lekuan otzan eusten didan mehatxuari  
ez ikusiarena egiteko bezain zuhurra.  
Ausartak lurpean; zuhurrak eta koldarrak  
kale eta etxeetan.

## LOTSA VASCONIAN

*El teonimo losa (o loxa, como también aparece en alguna inscripción del grupo), es “el más seguramente vascón” de los encontrados en la región, y entre las variadas explicaciones que sobre el nombre de esta divinidad se han propuesto parece bastante posible la hipótesis que lo relaciona con la voz de euskara lotsa, con el significado de vergüenza, miedo.*

Inscripciones romanas del museo de Navarra.  
C. Castillo, J.Gomez-Pantoja, M.D. Mauleon.

Bizimodu barearen oparia.  
Nagusiaren legeari zor zaion obedientzia mantsoa.  
Euri eta orratz gortina da  
bi aldeok bereizten dituen muga.  
Eta tenorea iristean,  
galdera:  
Zer galdu? lotsa  
ala beste guztia?

Ospakizunik zaratatsuenetako  
zorion betea ere  
apur bat mina da jende  
burutente honentzat,  
hala nola den mozkorraren esnatzea,  
hala nola den hazia antzu isuri ondoko unea.

Eta zer galdu? Lotsa  
ala beste guztia?

Zer galdu gehiegi agerrean,  
zer galdu gehiegi saltusean,  
zer galdu gehiegi  
Vasconiako luroretan.

## ZAINDU GIZALEGEA

Atean geratu zaizkio zain itzal  
zehatz, isil, tinkoak.  
Erretraturako sartu da gizalegea.  
Argi naturala erabiltze aldera  
leiho ondoko besaulkian eserarazia,  
hitz gutxikoa da, pentsamendu sakonekoa,  
mundua ikusitakoa,  
gizalegea.

Baina tarteka mintzo da.  
Eta ahots sendo, ziur eta abegikorrez  
agertzen baita,  
errespetua ematen du, miresmena sortzen.

Hau dio:  
*Engainatuko zaitudan lehenengo aldian  
neure errua izango da...*

Eta, pixka bat geroago, beste hau:  
*...bigarren aldian ordea,  
zeurea.*

Jendea kalean inurriak bezain txiki  
ikusten da pasatzen leihotik.  
Iribarre etsia, melankoniatsua geratu zaio  
gizalegeari ezpainetan.

Keinu hauek egiten zail, ofizioa.

Eta zer esan,  
ongi ulertzen duela baizik?  
Zer esan, gizalege jaunak ez dakienik?  
Bigarren aldia eta gero makila hartu  
eta bizkarra zergatik ez dioten ederki berotzen  
ondo daki eta,  
zehatz, isil, tinko daki eta, gizalege jaunak!

Jendea kalean inurriak bezain txiki.  
Isipuz koloreak atzera nahastu eta,  
ofizio honetan argi itzalen apetak zaintzea komeni baita,  
kokotsa apur bat jaisteko erregutu dio erretratistak  
gizalege jaunari.



## AHULENA

Zaitezte bihozberak gurekin, zuek  
borroka-leku honetara etorririko arrotzak.

Ezin dizuegu gurekin bat egin dezazuen eskaini.  
Izan ere, gu, arregura eta bekaitzaren seme-alabak,  
bihotz beltzak gara  
gure etsai zaharrekin.

Zaitezte bihozberak gurekin, arrotzak.  
Gure etxea, zuen etxea da.  
Ez gure aurka oldartu, ez gu gorrota.

Ezin dizuegu gu bezalakoak izan zaitetzten eskatu:  
Gaiztoak gara.  
Gaiztoak, gure etsaiekin.

Zaitezte bihozberak: ez gu gorrota,  
ez gure aurka oldartu.



**Totel lirikoa**



## THEORIA ASTROLIRICAE

*dembora presentea eta dembora pasatua  
acaso daude biac presente  
dembora futuroan,  
eta dembora futuroa contenituric  
dembora pasatuan.*  
T.S. Eliot

Eguerdiz, metroko bagoi betean zutik,  
keinu izu eta naroa soinean oroitzen zaitut.  
Ematen zuen egunsentiarekin betazalak altxa  
eta hogeï mende beranduago esnaturiko andereño  
erromatarra zinela.

Orain, ene Lesbia,  
izara zurien hegalpean gaudelarik,  
eta lepagaina esnez egindako eskuz  
ferekatzen didazularik,  
badugu elkarri zer kontatu eta  
eztiki didazu aurpegiratzen  
ez nuela miresmenik batere agertu  
gure enkontru gertagaitz  
eta zori onekoaren aurrean,  
ezagun zaharra bazintut bezala  
begiratu nizula lehen aldi hartan.

Egia da. Garbi behar dut aitortu  
ez ninduela ustekabean harrapatu,

bakoitza bere bide zidorrari jarraiki,  
jende artetik elkarren altzora iritsi izanak.  
Aise nuen barneratu, bai  
Tevere motelaren ondoan jezarrita,  
gu bion soin lotuekin sorturiko irudia.

Ene Lesbia, neure burua zuritze aldera  
zure hitz salatariei hura,  
ezer uste ez eta, halaber,  
den guztia espero nuen sasoi gorria zela niretzat  
erantzun baniezaieke ere,  
nahiago dut  
zuri liburu zaharrak ireki  
eta astronomo larri, jakintsuen esanak  
arretaz adi ditzazun eskatu.

Izan gogoan, ene Lesbia, teoria astrolirikoak.

Xaboi anpuluak airera bezala hedatzen diren  
unibertsootan, kuttuna,  
dimentsio paralelo antzeman ezinetan  
etenik gabe sortu eta birsortzen diren  
unibertsootan, laztana,  
egin kontu Lurreko hondartzetan  
hondar aleak hainbat direla galaxiak,  
galaxia espiral, galaxia eliptiko, galaxia irregularrak,  
eta galaxia esnetsu hauetan, aldiz,  
ehundaka mila milioi baino gehiago  
txinparta egiten duten izarrak,  
eta izar hauen inguru biran, berriz,  
hamaikatxo, planeta zoro zoragarriak.

Izan gogoan beti  
teoria astrolirikoak, ene Lesbia.

Jakin, zein diren zabal eta zein diren urtetsu  
munduan diren unibertsoak.

Bada espaziorik nahikoa munduan  
litezkeen enkontru guztietarako!  
Bada ziklo infinituen saskian denborarik aski  
litezkeen kasualitate guztietarako!  
Noizbait behar zuen  
gure kasualitate honek ere;  
nonbait behar zuen  
gure enkontru honek ere,  
aukera eta konbinazio oro onesten dituen  
unibertsoetako bidegurutzetakoren batean.

Zergatik harritu, orduan, Lesbia?

Zergatik?  
Ez zaio asmo onez datorrenari  
halakorik galdetu behar.

Harritu ez, ene Lesbia, gaitezen bizi  
eta maita, gaur ere.  
Ez gaitzatela gure ehun musuek, mila laztanek,  
harritu.  
Uxa ditzagun beldurrak, lurperatu kezkak.  
Gaitezen bizi eta maita, atzera ere.  
Eta pentsa dezagun haizea  
alde dugula bidaian,  
konbentzi gaitezen  
zeru altuko izarrak gurekin daudela, oraingoan.  
Eta, espazioaren urruntasunak  
edota huts kosmikoaren hoztasunak eraginda,  
edo beste arrazoi kalkulagaitz  
sakonen batengatik bestela,

hala ez bada eta, alajaina,  
izar inbidiatsuok gure aurka egon  
eta kalte egin nahi badigute, zitalok  
etorkizunik opa ez baldin badigute, orduan,  
orduan, jarrai dezagun bizitzen  
eta elkar maitatzen, neskatoa, eta sinets dezagun,  
sinetsi,  
euren kopuru erraldoiak  
eta gure ibilera diskretuaren ttipiak  
nahastu egin dituela,  
eta munduko gure bazter txoko honen zantzua  
ezin aurkitu dutela jada.



## POSTALA

Nik ongi maite zintudan.  
Eta zuk ongi desio ninduzun.

Ordea, nik zu desio bezain trakets  
zuk ni maite: gerorako beti,  
pauso bat atzeraka beti.

Hala nola gauak eta egunak,  
batak ukitzen zuen zerutik  
alde egiten zuen besteak.

Oskorriaren engainu ederrean,  
halaxe bizi izan ginen  
gauzak pixka bat aldatu artean.

Orduko hartan ordea,  
zuk ninduzun bezala desio izan nuen nik  
eta nik zintudan bezala  
maite izan ninduen berak.

Eta gaineratikoan  
gure arteko hartan bezain ongi genbiltzanez,  
gau eta egun elkarrekin gara.

Lehengoan eperretara irten genuen biok.  
Atsegin zenituzkeen: papoan pinporta  
beltzekiko txoritxo potolo

moko gorri, nabar batzuk.  
Zoriontsu naiz. Ondo nago.

Zu ere hala bazaude, hobe.

## ÑABARDURAK

Begi nabarrak zituen.  
Aldaketa sotilak antzematen zitzaizkion  
betseinen uhinduretan

Harekin gauzak ez ziren izaten  
zuriak  
ala beltzak.

Eta hartara,  
esango nizuke  
txalupa errariaren gisan  
zeharka hurbilduz,  
nire beso arteko kalara  
babes bila  
etzan zenean  
ez zela inondik ere gezurretan ari.

Eta hartara,  
zin ere egingo nizuke  
larrua jo ondoren soina  
belakirik suabeenarekin bezala  
ikuzten zidan  
begiratuaren maitasuna  
egia erraldoia zela.

Nabarra.  
Ez beltza, ez zuria.

Nik uste dut horregatik  
kosta zitzaidala ulertzea  
Bihotzarekin kale itxia  
jo genuen hartan,  
haren begiratua ito zuen  
etsipen eta nora ez  
sakon, beldurgarri hura, berez,  
gezurra zela.

Eta nabartasun horregatik  
beragatik,  
susmoa ere badut,  
agurrerakoan  
begirada bedeinkatu harekin  
errepikatu zidana,  
beti beti izango ninduela  
gogoan,  
ez zela egi  
egia izan.

Haren begi nabarrek  
batzutan  
gezurra esaten zuten.  
Eta beste batzutan  
ez.

Haren begiratu nabarrak  
batzutan  
egia esaten zuen.  
Eta beste batzutan  
ez.

## BISITARIAK 21:00-23:00

Max-i eta bere arrebari

Ohartzerako egun bat baino ez dugu izango.

Eta handik gutxira...

bi ordu barru zarete abiatzekoak, bisitariok

Aurki irtengo duzue aste honetatik zuen hirira bueltan.

Eta bi ordu, bada zer bait,

baina ez aski denbora hiruren artean banatu behar duen  
bikotearentzat.]

Afalondorenean larrialdi deiarekin probatu dinat sukaldetik.

Etorri hatzait,

umea bainu-ontzian uraren propietate bitxiak aztertzen  
utzita.]

Ez dinat hik arreba nagusiaren ardurak alboratzerik nahi.

Doi agurtu nahi haut soilik.

Eta huntza bezala lotu. Lepoa hire lepa xerloan gora hazi  
zaidan.]

Pasaeran, etxeko betebeharrak oztopatu nahi ez dituenaren  
antzera,]

eskumuinak ematera

sartu natzain, ixtear den egunaren zirrikitu epel, bigunetik.

Berehala itzuliko haiz –galtzetako botoiak lotu eta dedu  
oso- nebarengana.]

Eta geroxeago, geltokian  
txorimalo malenkoniatsua izango naun eraman zaituzten  
trenbide hutsari begira.]

**Lehenbailehen itzultzeko, baldin azken unean ebasten  
utzi didanan **hire usaina**]**

**berreskuratu nahi badun.**

Enkargu hau dinat hiretzat, Cira, nire behatzik harroxko  
eta sentikorrenaren partetik.]

## ALBATROSA ETA UGATZA

Mendilerroak eta itsasoak tartean bezala  
sartu zaizkigu egunak, luzatu asteak.  
Lehenengo hilabete izandakoak, urte gero.  
Eta ezin esan, orain, astegun buru zuriz  
espaloia inor –eta batez ere zu–  
kausitzeko leku egokiena denik.

Garai hauek astintzen dituen habailaren  
haizeak zaildu egiten ditu gauzak.

Ez genuen asko usteko denboraren igarotzeak  
hegazti jaioko gintuenik. Goitik goaz oso jadanik.  
Honez gero, denon lurretik baino  
norberaren zerutik hurbilago,  
inoiz etsitako egonkortasunaren oreka zaila  
etengabeko higidurarekin ordainduz.

Baina gabiltzan agudo! ez dadila elkarri  
perez pare begiratuko diogun abagunea  
hegaz airean ixten ditugun gure  
zirkulu bakartien arteko ebakidura  
galkor eta soila besterik izan.

Berandu baino lehen: erabaki dezagun  
kafetegi mahaitxo bat  
edo itutzat balioko digun beste edozer.  
Gatozen ziurgabetasun eta iragan minez

itzulinguru mantsotan jaistera.

Oroitzapen konpartituan lur hartu.

Bi orduz bada ere, denborak nola aldatzen gaituen  
miretsi.

Agian, gure hegaltzarren ahurrak erakutsi.



berunezko ate astunak  
bata bestearen atzetik golpean ixten  
eta muinerantz hurbilduz leun lerratzen den  
pantera beltza honez gero gaua  
aurrez aurre hatsanka gure ahoei darien  
gas malba pozoitsuak argitzen du  
ihesbiderik gabeko azken ganbara itsu hau  
eta hasieran atzendu bagara eta elkarri hurbildu gero  
ahaztu zaigulako da nor zen jazarlea,  
nor berriz ihizia

gorde ditzagun galderak ordea gorde  
hobea da eta isiltasuna bai gorde  
beranduegi izango da eta  
apurka arima bortizki eraldatzen ari zaion  
erantzun hori iritsi orduko  
gorde galderak zalantzak isildu eta jaregin soinei eta  
aditu orduan nola datozen gogoaren zainak  
zutiarazten dizkiguten uhuriak  
baso sakonenaren erdigune atzeman ezinetik

belauniko jarririk  
euria eskatuko dugu  
gure ezpainen petalo haragitsuekin  
belauniko jarririk  
begiesten uzteko eskatuko dizut gurtzen uzteko  
erregutu zure  
eguzki

gris-arrosaren  
jaiotza nagia

buztin bilakatuko gara istil honetan  
eta kontuz ibiliko gara  
laztana kontuz  
ez dugu galderarik egingo  
musu zakarrez zigilatuko ditugu ezpainak  
zenbat maite zaitudan esango banizu  
ezin izango genuke eta  
aurrerantzean agian bizitzaren  
agian heriotzaren  
zama arinegia jasan.

## LOEZ LUZE, HEZE, BIGUNA

Begiak itxi arren  
ezin haut ez ikusi  
itzal arte honetan.

Plazerik  
gazi gozoenari emana,

luzea haiz, hezea  
eta biguna,  
itsaslandara jostalariena bezain.

Hedatzen zain gogoaren dardara  
labarretarantz  
adurra hasperenka isuri arte.

Korrontearen atzamar bipil  
eta gutziatsuek ,  
nireak ez diren besoetan kurumilkatua,  
hi  
itsaslandara bat haiz.

Ni, berriz,  
har  
zuri  
lingirdatsua.

Desplazerrik garratzenari  
estekatua  
luzea, biguna, hezea,

ez bainaun ni bihar  
hirekin esnatuko dena,  
ez bainaun ni bihar  
hiri begira jantziko dena.

Barrurantz arnaska,

harra naun,  
mantapean harabarka,  
ilunaren ertzak eldarniotan joz.

Itzal arte honetan,  
egunsentiaz gerokoa  
hi gabeko beste  
adin Quaternario amaigabe bat  
izango den honetan,

hire hutsunea besarkatzerakoan  
besoak  
hausten zaizkidan honetan,

ni zornea naun  
eta hi  
itsaslandara bat haiz,

itsaslandara zoragarri bat  
plazerrik gazi gozoenari emana.

## ZEZENBURU

ez hakit urrun  
ez nazan utz  
izu bortitz hau guztia  
xamurtasun hau guztia  
gertura hakit, ariadna naroa  
uki nazan ariadna ona, otoi  
esandan nor  
–esku dardarati hauen atzean– dun  
ariadna kuttuna, arren, esadan  
ni al naizen  
eguerdiko gelditasunean abandonatuko hauen  
teseo paltsoa  
loti ezitia, esan, ariadna,  
ni al naun hi bezalako dontzeila  
amore minak zaurituak jan dituen  
zezenburu  
bakartua ni al naun, ariadna?  
zezenburu bakartua ni al naun, ariadna?  
uki nazan ariadna ona, otoi  
gertura hakit ariadna naroa  
xamurtasun hau guztia  
ez nazan utz  
ez hakit urrun  
ariadna  
esadan nor naizen, onets nazan  
ez nazan gaitzes  
sakrifika hakit.

## GOGORRA, GOXOA, EDERRA (I)

Ume subnormalaren ama bezala.

Ume subnormalaren irria bezala.

Gogorra, goxoa, ezinago ederra  
egunsentian atari aurrera irten duen alargun gaztea bezala.  
Soro eta baratzei begira, malkarrei begira  
nola gerra-ondoko neguetan burdin diren eta hotz.  
Eta bera bakarrik.

Ez, hori ere ez

Ezta bakarrik ere: bakarra,

Jainkoaren aldean, oso txikia.

## GOGORRA, GOXOA, EDERRA (II)

Printzesatxorik babesgabeenaren ama bezala.

Xalotasunari ihes eginiko irria bezala.

Gogorra, goxoa, ederra

Ama lanera irten aurretik bezala.

Umeen txikitasunari begira

nola diren ipurtargi neguan, nola diren hobengabe  
etorkizunaren aurrean.

Eta bere.

Bai, hori batez ere.

Bereak: orain eta beti.

## BEGI URDINAK

*anaiari*

Hi itsasoko uhinei begira egoten haiz.  
Ni berriz, zeruko hutsarteei.  
Auskalo zergatik.  
Agian bakoitzari falta zaiguna  
eta betetzen gaituena bilatzen diagu.  
Ezberdinak gaituk.  
Besteari kendu zaion gaitik  
sortu al zuan bakoitza?  
Jada inork gogoratuko ez gaituen arte  
anaiak izango gaituk,  
eneko.  
Suntsigaitzak elkarrekin.  
Errautsa, elkarren kontra.  
Onak eta indartsuak eta beldurriak,  
subnormal handiak bezala.  
Probintziako lurrarekin estaliko dizkiagu  
gure lilitegietakougar uherrak.  
Eta amaitzean deabruen bila abiatuko gaituk  
suhatz goriak eskuan.

Bueltakoan, C. eta M. andere maitagarri  
oparituko zizkieagu alu horien begi gorriak.

Eta buztan bat heltzerako, gure amari.



## GEROZ ETA ESANAHI ARRAROAGOA

*It is difficult  
to get the news from poems  
Yet men die miserably every day  
for lack  
of what is found there.  
Hear me out  
for I too am concerned  
and every man  
who wants to die at peace in his bed  
besides.*

William Carlos Williams

Hitzak,  
hitz beti ttipiak  
soin gazte biluzien  
antzekoak dira.

Higiduran direlarik,  
airera hotsez sartzen direlarik,  
biziak dira,  
lotsagabeak,  
baldresak.  
Uzkurtu, ireki, isuri  
egiten dira.

Aldiz,  
orri zurian paratzen ditugularik,  
zein diren  
bere horretan erakutsiz

geldi direlarik,  
zalantzakor bilakatzen dira  
eta dardarti.

Konszienteak, ikararaino

Ematen du lotsa direla, beldur  
diotena esateko.

Eta ederrena  
hitz egitea bada ere,  
batzuetan,  
ezinbestekoa da  
idaztea.

Badira ahotik ateratzen  
zail direnak.  
Badira keinu bat  
aski ez dutenak.

Eta zuek zauzkatet gogoan,  
O. harrigarria,  
J. zaharra.

Nire alde O.  
zure aurka ezetz,  
ez neukala ezer, erantzun ondoren  
mozorro zaputz bat, ez besterik,  
eskaini nizun  
harekin nahi zenuena  
egin zenezan.  
Hari begiratzeak  
higatu egiten zuen,  
higatu, ezta?

J., apenas egiten dugun galde zutaz etxean  
Baionakoaz geroztik.

Sortu orduko urtzen da  
zure izena elurra  
itsasoan bezala.

Txundidura eta samin uhara  
ireki zenuen hurregi.  
Eta ez dut aurkitu erantzunik  
zure ordeaz emateko.

Banu ere, isilik hobe.

Eta zer egin galera honen aurrean?  
Nola bete isiltasun miserable hau?  
Ustekabeko enkontruetan  
enbaxadore gizabidetsu lako hitzak bidaliz  
gure arteko eremu erraustuan  
aurrera?

Larru puska zaharrak dira  
hitz horiek.

Ez niri eskatu ezer,  
badakizue eta, agian,  
agian,  
ez dizuedala emango.

Baina zuentzat ditut, otoi,  
parean dituzuen hauek. Astiro  
loturiko,  
ezabaturiko,  
aldaturiko,  
aitorturiko  
hitz lakatz, dardarti,

ikararaino  
konsziente hauek.

Zuentzat, J. Zaharra,  
O. harrigarria.

Har itzazue, mesedez,  
orri zuri honetatik.  
Eta eraman itzazue, arren,  
eskuetara,  
musura,  
begietara, faborez,  
ukimenak zerbait leuna  
esan nahi duen  
lekuetara.

Esanahi arraroa du maitasun hitzak, J.  
Geroz eta arraragoa, O.

HAIZEA TXERNOBILGO BASO EDER,  
ISILETAN

BIZITZAK

zu ere ikaragarri  
maite zaituen arren  
ez zara zu bakarra,  
ez zara zu aukeratua.

Zinez ditu begiko zuk  
txiki eta ahul direlako,  
edo mutu, itsu  
eta gor direlako,  
edo dauden lekutik higitzen ez direlako,  
xinpletzat dituzulako,  
isekaz eta gainetik begiratu ohi diezun  
beste izaki horiek denak ere.

Onar gogo onez  
eta goza sakonki berak denoi  
eskaintzen dizuen  
poz eta plazera.

Eta izan prest, gainera,  
bere umore aldaketa bat-bateko  
eta beldurgarrienak jasateko ere.

Ez zaitetz jeloskorregia izan.  
Etxekalte izango dituzu

bere beste ezein maitaleri  
jotako eraso amorratuak .

Gorde bonba atomikoak  
patrikan.

Ahaztu harrokeri  
eta desafio zentzugabeak.

Zeu izango zara beti  
bikote kide hauskorrena.  
Baditu berak bere arauak.  
Ez dituzu zuk jarriko baldintzak.

Edo, agian, bai.

Nolanahi ere  
egin kontu harremana etenez gero,  
zu gabe ere  
aurrera egingo duela BIZITZAK.

Zuk bera gabe,  
ez.

**Ez azkarra, bai saiatua**





*What thow lovest well remains,  
the rest is dross  
(...)  
Pull down the vanity,  
I say pull down.  
Ezra Pound*

I

Bazterreko herri batean, baserri pobreetan sortutako  
semea eta alaba  
izan ditut amaren gurasoak.

XIX. mende amaierako eta XX.enaren hasierako  
urteez ari gara, *Belle Epoque* Europan eta handik  
atzera zer ageri den begiratzuz gero,  
pare bat karlistadaren lainoa baino ez dugu atzemango.

Bikote honek,  
ezkondu ondoren,  
goialdean etorkizunerako panorama beltz samar  
zeturrela ikusi  
eta eginahalak egin zituen menditik jaisteko.  
Eta aitortu behar da  
ia lortu zutela.  
Izan ere alokatu zuten baserri xelebrea, sukalde  
ondoko atea  
landara ematen bazuen ere, ukuilukoa  
kale-kalera zabaltzen zen.

Hamaika  
seme-alaba izan zituzten

eta inoiz horietan zaharrenari entzunda dakit  
senar-emazteen artean  
eztabaida izaten zela ea umeak  
nola hezi.

Andreak komenigarritzat zuen  
neskame  
edo  
morroi  
izatea zer zen jakin zezaten  
hankagorriok etxetik beste norabait  
bidaltzea.

UMIL izaten IKASTEKO modua zela  
zioen.

Gizonak, aldiz, ez zuen horrelakorik  
entzun ere egin nahi.

Bera bizi zen artean ez zela bere seme-alabarik  
inongo nagusiren adorean  
ibiliko  
aldarrikatzen zuen.

6 urte betez gero etxetik kanpo,  
Apeaderoan

ume zain,

Aizpurutxon

neskame,

Araban

txerri-zain,

Harriurdinen

morroi

eta beste hainbat lekutan esaneko ibiltzea zer zen  
ederki probatuak ziren eurak.

Amona –ia ehun urte ditu egun– ez da andere umila.  
Baina ziurrenik HARROTASUNA  
pobrea zaurkor bihurtzen duen zaindu beharreko  
joeratzat du  
eta HARROKERIA, berriz,  
lotsagarri geratzeko biderik zuzenekotzat.

Pertsona isila da bera,  
erraz usma litekeenez.

Aitonari  
kontua eta kantua  
ikaragarri gustatzen omen zitzaizkion  
eta baita  
bizilagunak  
erosi, irakurri eta beti hurrengo egunean  
utzitako periodikoa leituz ilustratzea ere.  
Gazte hil zen.  
Lantegian, eskaileretan behera erori eta  
lepahezurra hautsita.

Hil ezkerro,  
isila da bera ere.

Eta baiki, hasiera aldean aipaturiko eztabaida haren harira  
azpimarra liteke  
UMILIAZIOAREN eta UMILTASUNAREN arteko marra  
ez dela batere argia izan  
gure amaren gurasoen etxean.

## II

Gure ama, herriko paper fabrikan aritu zen  
esan dezagun,  
berandu arte. Hogeita bost urte eta ezkontzeko baino  
beste zer]  
edo zer ezagutzeko gogo itogarriagoa bide zuen. Eta hala,  
bazterreko herri hartakoaz bestelako bizi majiko baten  
bila, urratsek]  
atzerrira eraman zuten.

Parisen  
noble titulua-edo omen zuen andere baten etxean  
neskame  
izan zen, zenbait urtez

Nolanahi ere, astiro hasi bai,  
baina gero habaila geldiezina hartzen duen  
egunerokotasunaren]

zurrunbiloak  
ipar haizeak orbela bezala barreiatu ibili ondoren,  
ia hamar urteren buruan  
Donostia  
hiriburutxoan utzi du.

Ezkondu zen.  
Etxe garbitzen aritu.  
Ikasketak burutu zituen.  
Aurreztu.

Eta orain  
bi seme osasuntsu dauzka  
gizon zentzuduna senartzat,  
bi etxe,  
eta lan eta soldata onak  
ere bai.

1921ean burgestxo arrakastatsuentzat eraikiriko  
bere egungo etxebizitza dotoreak  
kuriroski, bi ate dauzka.

Atzekoak

barruko patiora ematen du eta bere garaian, etxe hartako  
neskameek]

erabil zezen omen zen.

Besteak, kale-kalera ematen du.

Hondartzara daramaten kale

horietako batetara.

Gure amak

semeotariko bati, behin batez, mutikoa

ikastolatik umore oneko, nota txukun antzekoak erakutsiz

eta puztu imintzioak eginez agertu zitzaionean,

ohartarazi zion

bizitzarako armak hartzarren edo,

berak

bizkorrak ezetz, baizik eta gizon saiatuak, langileak,

zituela estimatzenago.

Azkartasunarekin bakarrik

ez zela bizitzan aurrera egiten,

LANGILEA,

SAIATUA

behar zela izaten IKASI.

Ezin uka,  
HARROTZE kontuengatik baino UMILTZE kontuengatik  
kezka handiagoa jarauntsi duen emakumea denik

### III

Behinola urrutiren batean bizi  
eta hil zen Basho deituriko erdaldun bati iruditu zitzaion  
—eta gure ustez zuzen iruditu zitzaion—  
denbora igaro egiten dela eta belaunaldiak  
ere bai,  
eta ez duela ezerk ere, ezta horien aztarnarik  
xeheenak ere,  
irauten.

Egia da, nik  
ikusi dudalako.

Baina denborak bere lana egiteko ere,  
denbora behar duela ez da gezurra.  
Badira ahaztearekin batera desagertzen ez direnak  
eta  
badira desagertu arren oroimenaren anbarrean luzaz  
gorde daitezkeenak ere.]

Zerk irauten duen nire barruazalean galdetzen diot  
neure buruari.

Zer ez dut ahaztu? Zer ez zait desagertu?

Probintziako hizkera dut,  
baina gauzak zertan diren ikusirik  
harrituko ninduke nire ondorengoak baserritar izatea.  
Hiriburu handietako kaleak orkatiletan gora

korapilatu izan zaizkit pitoi  
sugeak bezala  
eta turismo egiten duten euskaldun  
berrien  
neskame eta morroi  
izatera etorririko jende pobrea ikusten dut  
egunero.

Heredatu dut,  
aitona-amonen eztabaidaren marra  
eta hartara,  
zailtasun seriosak ditut UMILTASUNAREN amaiera  
eta UMILIAZIOAREN hasiera  
bereizteko  
eta guztiarekin ere,  
ama poztuko luketen dohainen jabe egin naiz  
azkenean:  
Gizon saiatua naiz.  
Ez naiz bizkorra.

Begira bestela zenbait gauza ez dauzkadala ahazteko  
esanez,  
zenbait oroitzapenek ni hil ondoren ere iraungo  
dutela ustez bezala,  
inozoki  
eta kostata  
eta  
alperrik  
lerroz lerro eutsi diodan  
saiakera baldar honi.



**Mistika hutsa, esnerik gabe**



## BANINTZ

Jakina, gehiago da ez naizena.

Izan, banaiz zerbait, egia: gaur,  
hemen, hogeita zortzi urteko gizon gaztea,  
hitz bila.

Baina, jakina,  
Gehiago da ez naizena.

Izan nintekeen udaberri goiz baten sosegua  
eta lagunak erreka ertzean otordua egiten.

Izan nintekeen oihu larria  
hondakinen azpitik laguntza eske.

Lora nintekeen zuri, Kyotoko  
gereziondo batean.

Baina, ez.  
Itxura denez, lurralde promestutik osturiko  
belar izpia, naizen hau:  
eder eta handi den zerbaiten  
oroigarri txiki, ezdeusa.

Galde nezake:  
besterik banintz, zer?

Ordea, denboraren igarotzearekin,  
geure burua ongiegi ezagutu dugularik,

hura samur estimatzen  
eta zaintzen ikasi dugu.

Garenaren neurri abegitsura  
eginak gaude.

Eta ez denaren ilunpera  
lerratuta desagiten zaizkigu banintz  
eta gisako galderak.

## LEHENENGO ALDIA

Ba omen da beti bat.  
Baina, egia esan, dena da lehen aldia.  
Edozein aldi izan bailiteke lehen aldia.

Lehenengo bigarren aldia,  
5736. lehenengo aldia.

Begira olatuei.  
Azkeneko aldien urrautsetatik  
dira hegaztiak bezala jalgitzen  
lehenengo aldi apartsuenak.

Hau dut nire lehenengo hogeitazortzigarren uda.  
Murgil gaitezen, lehenengo aldiz, eta senti  
uraren barrunbe biguna  
xularmeak oro babesten.

Mintza hautsiz erdi gaitezen eguratsera gero,  
lehenengo aldiz,  
eta jantzi brisara, hari finekiko alkandora bailitzan.

Itsasertzean zutik  
beti da lehenengo aldi bat  
fenix akuatikoen heriotza  
eta jaiotza tai gabea mirestekeo.

ARTOLA DETEKTIBERAREN PESKIZA:  
NON OTE DA AZKENA?

*When the storm passed  
She never opened her eyes.  
This is extinction.*

The Song of the Dodo.  
D. Quammen.

9.000 milioitik gora lagun honez gero munduan eta nahikoa lan.

Apuntatu Marinica<sup>1</sup>, badatoz eta berriro, ohiko galderak. Zein ote da azkena?

Ikus daitekeenez laino itxi batek inguratzen du haren zilhueta uxter eta irristakorra, haren irudi, hala ere, bakartasunak zehaztua.

Misterio handia, ondikotz!

Baina gutxi batzuen kezka. Are, gutxi garenon artean, zenbaitena baino ez.

---

<sup>1</sup> – *Argia*: (...) *jende horiek kontziente al ziren azkenak zirela?*

– Koldo Artola: Bai, bai. (...) Zaraitzuko Espartzan berriz, ezagutu nuen andre bat lau biloba zituena. Bi gazteenak berekin bizi ziren etxean. Hamar urtekoak “a mí, abuelita, no me hable en vasco” esaten omen zion. Gazteenagatik, aldiz, kontatu zidan: “Korrek ikasiko luke. Erraten dakot: Marinica konta zagus berriz!”. Eta hogeira arte kontatzen omen zuten, eta gero berrogeira arte. Marinica hori gaur egun Erronkari herriko euskara irakaslea da (...). (*Argia*, 2006ko maiatzaren 14a, 49-51 orr.)

Esan liteke:

Zentimoko txanpona galtzea bezain ardura ezdeusa.

Dodoaren estropezukako ihesa bezain barregarria.

Krimena, baina gertaeren orrialdean agertzen den horietakoa.

Gauza benetan garrantzitsuak eta gero datorrena, hirugarren maila erregionaleko detektibeentzako kasu xelebrea.

Eta galderak,

erantzun erabilgaitzeko galderak.

Nolakoa ote da azkena?

Agian, zuk eguzki printza dela uste eta ez!

hizketarakoan eskua besoan pausatzen dizun neskatileta lotsagabe samar eta alaia da.

Akaso, bihotzeko titarea ardoz eta bekaitzez betetzen duen maiorazgo

desheredatua da, bazterren batean botata, hor nonbait.

Edo, tuba jotzen du eta medikua izan zen eta lau iloba dauzka.

Nolakoa, azkena? Bakartia ote da? Lagunarte zalea?

Lider petoa?

Izango ote du

Bronxeko kobazulo nardagarri hartan

ezagutu genuen

susmagarri haren antzik

ezentzunarena egiteko moduan bada ere?

Ezetz gero, oker behar genuela, ez zela bera

eta arrasto bila jarraitu behar, ikerketa lerro berriak ireki behar.

Begira, errezelen atzetik jendeari, Marinica, nola  
etxe-orratzak zigzagean saihestuz presaka  
arkupeetarantz doan.]

Hiritzar hau laster euria ere izango da.

Eta zein hariri heldu?

Azkena nolakoa izango duen ere galdetzerik ba al dugu?

Nolakoa ote du azkena?

Erregistratuko ote du liburu ofizialen batek haren adioa?

Ala eguneroko pribaturen baten bila jo beharko dugu?

Eskainiko ote dio omenaldi txiki eta duin bat udazken  
iluntzaldez

auzo-elkarteak?

Ala, oharkabean igaroko da egunen aldamenetik  
enbarazurik egin nahi ez duen neskame  
igar baten gisan?

Bera ez beste inor geratzean zintzoak –ez gaiztoak, ez  
krudelak–]

Zintzoak izango ote dira BESTEAK berarekin?

Onartuko ote du bere egoera propioaren propietatea?

Izango ote da inor deseroso sentiarazteko gai?

Eskuzabala izango ote da patua

haren mundu-aldiarekin?

Izango ote du eskupekorik?

Marinica, ea bonbillatxoak pizten zaigun. Kontsulta  
genitzake artxiboak.]

Zoaz begiratzerara, aztarnarik ematen diguten. Hor dituzu

–E– kaxoiko fitxak:

Anaut, Antonia;



Bernat, Fidela;  
De Miguel, Doroteo;  
Ederra, Balbina;  
Garrues, Joakin;  
Mendigatxa, Mariano...

Azkena,  
Artean azkena bera dela jakiteke, sinesteke,  
*Hasta luego au revoir*  
*Saionara babe* esanda kale izkinaren bueltan  
desager liteke.

Azkena,  
Artean azkena bera dela gehiegi axola izan gabe,  
aitortu gabe,  
kataklismo batek eraman lezake –meteorito  
ero batek, uholde bibliko,  
izurrite bihozgogor batek–  
munduan diren beste guztiekin batera.  
Ardura, baina, espero izatekoa da,  
azkena zenduko den eguna  
ordua galdetuz bezala xinko den egun arrunta izatea.  
logura bezalako zerbait, hitzaldi garrantzitsu baten  
erdian.

Azkenaren munduan zeharreko ibilerak  
ez dira, ziurrenik, oso erdiragarriak izango  
munduarentzat  
mundu zabal eta harrigarri honentzat.

Begira kristalaz bestaldera, Marinica.  
Ekaitza baretu eta joan egin da.  
Xingola arina dirudi une honetan guztiak.

Izango ote da, egiazki, azkenik?

Noiz?

Ala mito bat da?

Kontuzahar hutsa.

Gutxi garenon artean

zenbaitentzako baino ez ikuskizuna:

Egiozu so, Marinica, landetatik

hiriaren zuztarretaraino

abarrik abar txingortuz datorren

bizitza xeibre eta oies honi.

Goazen kaleak ibiltzera, Marinica.

Utzi olivettia eta jaits gaitzen karririk ibiltzera,

Marinica.

## HARRIA

*Leon Feliperi bariazioa*

Horrelakoa nahi nuke nire bizitza  
herria,  
zu bezalakoa. Zu bezalakoa,  
herri txikia,  
zu bezalakoa,  
herri arina;  
uherria, goroldiorik  
lotzen ez zaion  
herria;  
zu bezalakoa, galtzada  
eta bide zidorretan  
dabilen herria,  
zu bezalakoa,  
gurdibideetako herri koxkorra;  
zu bezalakoa,  
ekaitz egunetan  
lupetzetan hondoratzen dena  
eta gero apatxen kontra  
eta gurpilen azpian  
txinpartak ateratzen dituen;  
zu bezalakoa, etxabe herri  
izateko ere  
balio ez duzuna,  
ezta audientzia herri izateko ere,

ezta jauregi herri izateko ere,  
ezta eliza herri izateko ere,  
zu bezalakoa,  
herri menturazalea,  
zu bezalakoa,  
herri txiki eta arina,  
zu bezalakoa,  
agian,  
habail herri izateko baino  
balio ez duzun herri  
txiki, arina.

## HONDARRA

*Santa Maria Jaungoikoaren ama  
erregutu ezazu gu  
bekatarion alde.*

*Orain eta beti,  
gure heriotzako orduan. Amen.*

Herrikoia

Zu baino ez zara geratu santamaria  
zure kandela-argi bisaia maiztuarekin  
gure alde erregutuz.

Ez jada jesus jose ta mariarik,  
ez santana ta sanjoserik,  
hain gutxi, aitagurea zein  
agurmariarik.

Haurtzaroa zela zioen gazte ilun batek  
eraman ditu denak  
zakuan sartuta.

Zu nahi zaitut alboan santamaria,  
ez agurmaria bedeinkaturik, ez aitagure erreinuetakorik, zu  
zu ere  
–nahiz eta jainkoaren– ama baitzara,  
izaki ahul eta leiala baitzara,  
andere guztien artean.



## BESTEARENA

Hilobia, ospitalea, psikiatrikoa,  
bakarmortua.  
Jakin egingo dugu, edozein unetan.  
Guztia egunerokoa den bitartean  
iritsiko zaigu berria,  
edozein arrotz edozein hiritara sartzen den gisan.  
Gure iritzirik behar ez duen zerbait balitz bezala.  
Eta berdin izango dio  
sosegu gozoak kulunkatzen gaituen udako terrazan,  
berdin, lekuak itokarrean utziz ote gabiltzan astegunez.  
Hara hor, aldamenean, baina urrun,  
hara hor, auzoan, baina nahikoa gertu ez,  
zoritxarraren hotsa.

Atzerabiderik gabeko okerra.  
Galera negoziata ezina.  
Aldaketa, labana eta gero.  
Hutsunearen begi-ninian  
hutsunea,

gurea ez den oinazeak okupatua.

Eta iritsi ahala joan da.  
Atzean zer utzi duen  
gelditu gabe jarraitu du.  
Hegada eskergea eta kiratsuz,  
mutu eta basati,

ia xalo, ikaragarri.  
Batere batere amorrurik gabe.

–axola ez hari, izan ala ez–.

Zeharka nabaritu dugu pasatzen bere itzala.  
Eta ormara itsatsi digu bizkarra  
desplazatu duen aire ukaldi erraldoiaren bolumenak.  
Ez da lurra ikaran: belaunak.

Sentitzen dugu gugatik ere.  
Zehazki zer den, egiazki nor den,  
ez dugu bertatik bertara ezagutzen.

Baina nahiago genuke inon  
gordelekurik bagenu.



### AMETSA<sup>3</sup>

Oi, hiru aldiz biderkatzen zaizkik  
ametsak oihartzun zoro eta jazarri baten adats  
luzakorrak iduri,  
eta lehenengoan iraganaren ertz kareztatua jotzen ditek  
eta bigarreanean loaren lohietan itotzen dituk  
mamuthak bezala ahaztu arte  
eta hirugarreanean ez dakik gaua den eta begiak  
irekirik dituan,  
eguna den eta begiak sokaz josirik ditudan  
edota itsuturik isiltasuna naizen ezerezaren badian  
kate gabeko aingura legez hondoratu eta hondoratu.

bukatu aurretik jaso egin genituen  
ukitzeko ez besterako zitunan gure  
hatzapar barruak  
haizea iritsi hunan  
eraman egin gintunan katedraletik orbela  
eta harri txintzarrekin batera.

Esnatu.

## HAUTUA

Homizidaren aintza atsegin izanik ere  
urrikalmendurako berezko joera indartsuak  
bizitza luze, patxadatsu, otzanaren aldeko  
hautura bultza ninduen.

Etxean geratu nintzen, guraso zahar  
eta emazte leialarekin, betebehar umilekin,  
biharrak amini bat hobeak  
izango ziren esperantza onean, orduak lotuz  
egunak karriatuz.

Baina, agi denez, orakuluak  
mozkortuta behar zuen iragarpena egin zidan  
orduko hartan.

Ez nuen halako erasorik espero.

Orain ametsen beldur naiz, atezuan beti.

Geroz eta indartsuagoak dira, tinkoagoak  
eta nekeza da harresiak setio ankerretik defendatzea.

Egunez bai, zerbait egiten dut,  
neure buruarekin ez nagoenean.

Okerrena gaua da, begiak ixtean.

Azkar datoz, zuribiderik gabe,  
eta oroimenaren kuku-lehioak profitatuz  
zauriak ireki, barruraino sartu eta ikaragarriak dira,  
ikaragarri ederrak dira, zoragarriak,  
eta arima zulatzea, min egitea  
lortzen dute.

Troiako ordokiak ikusten ditut orain eta  
nekeak eta urduritasunak eta izuak ez dit argi  
ulertzen uzten baina badirudi  
brontzezko gurdi bortitzetan  
harresien aurretik deiadarka doazenak,  
horko horiek, nire bete gabeko ametsak direla  
hauts artetik errestan daramaten nire hilotza  
laidoz zigortzen.

*Minha patria é a lingua portuguesa*  
Fernando Pessoa

Umea artean.

Konturatu nintzen nire hizkuntzan  
hitz eginez gero, ez zidatela ulertzen  
inguruko ezezagun guzti horiek.

Behin baino gehiagotan gertatu zitzaidan hau.  
Ez zen, beraz, kasualitatea; ez zen, zorte txarra.

Beste bat dendetan zerabiltena; ulerkaitzak  
telebistako, telefonoko, kaleetako hitzak.

Lurralde honetan, arrotza, neu nintzen.

(Baina arrotza banintzen, orduan,  
nondik etorria?)

De todos modos, cuando aprendí la lengua del lugar  
me hicieron entender que no, que yo también era de  
aquí. Que no me preocupara,  
que me convenciese de que yo también era parte  
de esta tierra de todas y todos.

## BURGES TTIPIREN OBAUBA

Izango du burges ttipiak, noizbait, zakur bat lagun.  
Ehun eta hamar urte  
betetzen dituen egunerako, adibidez,  
sorpresaz ekar diezaiotela eskatuko du  
txakurkume pintto eta kokil,  
lurrerainoko belarridun bat.

–*Basset* horietako bat.–

Ederra litzateke egunsenti garbietara  
Kanelo izeneko porte duineko  
zakur hanka motz baten konpainian barneratzea.

Moldatuko litzateke ongi  
horrelako batekin.

Eta ehun eta hamalagarren urtemugan  
neguko hondartzara jaitsiko lirateke  
astegun buru zuriz, Kanelo eta biak.  
Bata bere gorputz adar ahitu, ximelekin,  
bere buru soil, ganbara erdi huts, urrats dorpeekin.  
Eta bestea,

bere lurrerainoko belarri apartekin.

Eta ziurrenik, hondarra hondar gainera erortzea  
bezala izango da.  
Bainulari bakanak asaldatu egingo dira.

Surflari gazteak jakinmindu.  
Joko dute larrialdi txikietarako  
telefono gorriek.  
Eta itsasoan eta zeruan  
guztiak jarraituko du nahiko antzeko.  
–esan nahi baita,  
handitasun eta bikaintasun deskribagaitzez–.

Hurbilduko zaio Kanelo gaztea,  
galdezka bezala eta erdi  
ulertu bezala egingo du.  
Eta miazka aurpegia  
lerdez ongi bil diezaionean  
hareatzen aurrera aldenduko da bere trosta  
labur, saiatuan,  
berriro ere kaio txundigarriak uxatzera,  
ur ertzaren mintza zipriztin alaietan zartatzera.

Lasterka doalarik, Kanelo ttotto  
ttontto alaeen honek,  
biraka, biraka, biraka,  
eiheratxoak diruditen belarriak lituzke!

Inork ikusita ere!  
Emango luke batzuetan ez dela enteratzen.

BURGES TTIPIAREN OBAUBA OSATU  
AURRETIKO ZENBAIT APUNTE

Zakurrek, ausartak direlako, eskuzabalak direlako,  
batek daki, baina erraztu egiten dute  
berez zail dena. Beti dute aski adore  
lagunaren bidegabekierarik lotsagarriena  
jauzi soil bat aurrera emanaz gainditu  
eta lehen laztana eskatzeko.  
Besteari legokiokeena emateko ausardia eta indarra.  
Especialistak, eskatuz ematen.

Euren arrazoiei ezin antzik hartu die.  
Baina hunkitzen dituen guztiak zentzua du.  
Zenbaitek dio azkarrak direla.  
Bestek, aldiz, inozo porrokatutzat ditu.  
Bataz bestekoa eginda,  
gutxienez misteriotsuak direla ateratzen zaizu.

Gehiegi ezagutu ez arren,  
atsegin dituzu zakurrak.  
Eskertzen duzu inor ikusteak ikaragarri pozten  
dituela adieraziz  
buztana ezker-eskuin astintzeko duten gogo eutsi  
ezin hori.

Gu, mozorroon artean bizi dira eta ematen du  
ez dakitela azalpeko harpeetan sekretuak narras  
dabilzkigunik,]



ez grina istilak hartitzen ditugunik.  
Enteratuko ez balira bezala da  
hiri handi honetan ustekabeen zu aurkitzeak nola  
inarrosi nauen.  
Badirudi ez direla ohartzen  
zu musuan ukitzeko keinua  
jaio aurretik  
nola ito dudan.

## LITOFAGIA

egon  
harriz  
elikaturiko  
lili lukua  
  
esperantza

## Epilogo



Gure hitzak ez dira oso trebeak.  
Ez dira artistak.  
Gehienetan ez dira nahi genituzkeenak azaleratzeko  
gai izaten.  
Ziurtasunez eta argi esaten dakizkitenak  
oso gauza errazak baino ez dira.

Honako hauxe, adibidez: *ez dakit  
nola esan.*

Edota, beste hauxe: *ezin dut  
nahi nukeena esan.*

Gure hitzak, gu bezala, ez dira oso trebeak.  
Ez dira artistak.  
Baina zer esan  
edota nola esan ez dakigula adierazteko bada ere,  
baina azaleratu gabekoa gehiago dela,  
ederragoa dela, ikaragarriagoa dela,  
egiazkoagoa dela  
esan gabe uzteko ere,  
euren beharra dugu.

Eta ez dauzkagu saltzeko, ez,  
gure hitz ezjakin, ezinduok.



*ELEBERRIA*

BILDUMA

1. Ur Apalategi: *Gure gauzak S.A.*
2. Monique Laxalt: *Oroitzapen urdin iluna*
3. Fito Rodriguez: *Faustoren itzala*
4. Ibai Iztueta: *Oro bare*
5. Txomin Peillen: *Jende ederrak lanean*